



Gaskoien plaza, 25

64 100 Baiona

07 78 99 62 84

info@alda.eus

## **Prentsa oharra – 2021eko maiatzaren 29a**

***Etorkizuna ez dadin gertatuko dena izan, baina eraikiko duguna.***

### **Aldaren egoitza estreinatua Baionako ZUP auzoan**

160 pertsonak parte hartu dute Aldaren egoitzaren estreinaldian, Baionako ZUP auzoan, zehazkiago Gaskoien plazako 25an. Kantu, bertsu eta hip hop dantzek animatu dute besta eta aldarrikapena lotzen zituen ekitaldia. Hitz hartze batek oroitarazi ditu urritik ari den mugimenduaren helburuak Baionako auzoetan, eraman dituen lehen ekintzak eta lortu dituen lehen garaipenak.

Elkarteko laguntzaileak, Baionako biztanleak, eta bereziki iparraldeko auzoetakoak, ELA sindikatuaren delegazio bat hego Euskal Herritik etorria, CNL eta CLCV alokatzaileen elkartearen ordezkariak, baita ere departamenduko hauteskundeetako hautagai batzuk Gaskoien plazan bildu dira 11:00etatik goiti Aldaren egoitzaren estreinaldirako.

Hiru orenez, kantu, bertsu eta hip hop dantzak izan dira, lekukotasun eta hitz hartzeekin tartekaturik. Mohamed Boujlal-ek ekitaldia abiatu du Madi Fat bezalako kantu batzuekin, eta Hegoak kantua erekin Abdullah bere semearekin. Aitor Servier eta Nahia Sasco bertsolariek Aldaren etorkizuna aipatu dute eta mundu humanoago eta justuago baten sorreran ukanen duen ekarpena. Ondotik rap kantari eta hip hop dantzariak txandaka aritu dira egoitzaren aitzinean.

Mireille Saint Macary, 1971tik Gaskoien plazan bizi denak ongi etorria eskaini dio Aldari Sainte-Croix auzora, lehen ZUPa txikia deitua zena: "Elkarrekin ez zuen leku hobeagorik hautatzen ahal bere egoitzarendako".

Emma Tosini, mugimendu berriko bozeramaile gazteak oroitarazi du Aldak eramaten duen lan sutsua sortu denetik, nahiz eta egoera sanitarioa zaila izan den: Baionako auzo eta biztanleen bozgoragailua izan nahi duen aldizkaria hiru hilabeteko 20 000 aletan banatua, zailtasunetan diren pertsonen harrera eta entzutea, inkesta bat biztanleei buruz, eta auzo bakoitzetako arazo berezien ikerketa sakona. Desiratu du egoitza "komunitatearen zerbitzurako tresna gehigarri bat izan dadin, beren bizi baldintzen degradazioa onartzen ez duten klase herrikoi eta ertainendako, izan daitezkeen sozialak, ekologikoak, edo sinpleki humanoak. Etorkizuna ez dadin gertatuko dena izan, baina eraikiko duguna!"



Xebax Christy elkarteko ko-lehendakariak sakondu ditu Aldak zailtasunetan edo injustizien biktimak izan diren pertsonen zerbitzuko eramandako borroka konkretu batzuk, maiz garaipen batekin bururatu direnak, agerian ezarriz ekintza kolektiboaren interes eta eraginkortasuna: mobilizazioa jabe batek apartamendu bat saldu eta alokatzailea kanporatzeko prozedura gelditzeko, laguntza desberdinak aseguratza kontratu baten aldatzeko, gutxi irabazten duen langile batentzat engainatzen zuena, edo elbarritasun egoeran den pertsona bat laguntza duela hamar urte ez ordaindutako alokairu batzuegatik sesitze mehatxuak gelditzea, errekurtsioak naturalizazio errefusa kasu batean, interbentzioak “irabazte apalegiengatik” etxebizitza sozialen errefusen aurka, edo obrak eginarazten sano ez zen apartamendu batean. Xebax Christy-rentzat *“ahotik belarrira eta aldizkariaren banaketak ekartzen dute gero eta jende gehiagok badakitela elkartasunezkoa eta eraginkorra den mugimendu berri baten gain kontatzen ahal dutela , gauzen egiazki aldatzeko”*.

Kadiri Laaroussi, ZUPen kokatua den Azkar Full Contact klubeko sortzaile eta entrenatzailea estreinaldian zen eta dio *“gure auzoek zinez behar duten proiektu bat da Alda, herrikoia, deneri idekia, Azkar klubaren partekatze eta trukatzeko balore berdinak dituen”*.

**Hedabideekin harremana:**

**Xebax Christy: 06 33 04 56 62**









